

JOSE MARIA LOJENDIO IRURE
(1910-1979)

Jaunak:

Albiste garrantza Euskaltzaindiari jakin arazi beharrean nago: Jose Maria Lojendio Irure jauna, euskaltzain oso eta euskaltzainburu ohia, hil zaigula. Joan den urteko Abenduaren 28an hil zen Donostian, 69 urte zituela, eritasun luze baten ondorioz.

Asko zor dio Euskaltzaindiak. Gerra ondoko urte zail haietan, Ignacio M.^a Etxaide jauna hil zenean (1962), Euskaltzaindiak berarengana zuzendu zituen begiak. Ez alferrik. Euskaltzainburu izan zen denbora



J. M. LOJENDIO
Euskaltzainburua
(1964-1966)

laburrean euskaltzain oso berri hauek izendatu ziren, gutxienez: Jean Diharce "Iratzeder", Alfonso Irigoyen, Pierre Larzabal, Jose M.^a Satrustegi, Antonio Zavala, Antonio Labaien, Juan San Martin, Jean Haritschelhar. Horiatarik ez gutxi orduan berean egin zuten sarrera hitzaldia. Beraz, garai hartan aurpegi berri bat hartu zuen Euskaltzaindiak. Gainera, haren denboran bi Biltzar egin ziren: bat Arantzazun eta beste bat Loiolan. 1963tik 1964era egon zen euskaltzainburu, eta ez 1964tik 1966-ra, leku askotan idatzirik ikusten dudana bezala.

Lojendio jauna, eta bai Arrue jauna ere, 1954ean euskaltzain oso izendatuak izan ziren, eta izendatuak izan ziren batzarrerera etortzen ez zirenen ordeko bezala. Hori egin ahal izateko Arautegia aldatu behar izan zen, honako artikulua berri hau sarturik: "Si un académico deja de asistir durante todo un año a las reuniones, sin excusar su falta de asistencia con razones que la Academia estime suficientes, se designará un académico suplente que gozará de todos los derechos de los académicos de número y que no cesará en su cargo aun cuando el suplido comencare a asistir" (Estatutos y Reglamento de la Academia de la Lengua Vasca, 1954; II, 7.º p. 4).

Orduan euskaltzain batzuk exilioan zeudelako, euskaltzain oso gutxi biltzen ginen batzarreetan, eta egoera honi erremedio jartzeko bilatu zen irtenbide hori.

Sebero Altube exiliotik etorri eta Gernikan bizitzen jarri zenean, Lojendiok nahi izan zuen haren obra batzuk bir-argitaratu (konkretuki, "La vida del euskera") eta bai berari omenaldi bat egin ere, baina zoritxarez asmo horiek ez ziren bete.

1966. urtean Euskaltzaindiak euskararen alde Hezkuntza eta Jakintza Ministeritzari egin zion eskutitza ere Lojendiok izenpeturik joan zen.

Lege-gizon zenez, geroago, Euskaltzaindiaren Arautegia gaurkotze eta berriztatze lanetan asko lagundu zuen.

Adin laburreko Auzitegiaren lanekin oso lanpetua ibiltzen zen, harat-hunatak ere maiz egin behar izaten zituen, baina hargatik Euskaltzaindiarekin bere lokarri eta har-emanak ez zituen bertan behera laga. Besterik ezin bazuen, etorriko zen batzar egunetan euskaltzainak agurtzera. Oroit naiz Elizondoko batzarrearen ondoan, bera klinikan zegoelarik, nola kontatu nizkion batzarreko berriak eta zeinen pozik eta arretaz entzuten zituen.

Lojendio jaunaren bizi-xehetasun eta lanei buruz ikus *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca -Euskaltzaindia-* liburua, eta *Euskera* (1968), 297. orrialdean.

Goian bego gure lagun zaharra.

Donostian, Urtarrilak 25, 1980
Fr. Luis Villasante